

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Mugarrotik Ipinabarrera

ZUHAITZ TANTAI EDO LIZARRETATIK abiatu, txaratik barrena igaro eta mugarro hauskorren gerizpe arris-kutsuan hartu genuen abaro. Mugarroari tarteka hostoz jantzitako abarrak moztu eta mandioan jasotzen ziren negu partean abereei majeran emateko. Inork ezagutzen al du lan hau egin izan duenik edo, hobe, eusten dionen bat? Gustura borobilduko nuke abaro ilunabar bat harekin, galdera batean: zein ilarigitan mozten dituzu? Zein zuhaitz da egokiena? Zer izen du hosto ihardun adar sortak? Zumearekin ala zein piru edo hederekin lotzen dira sorta horiek? Bazka honek zein zapore eranstean dio aziendaren okelari, esnari, gatzari? Eta abarrez abar.

Gure basoaren tantai-lizar, txara, motz-modorro-mugarro milaka urtetako bidezidorra ipinabarretan loratzen da, hortxe jotzen du goia. Bide honetako hurrengo urratsa ipinabarrena da, bai. Izenak berak dioen eran zuhaitzaren abarrak ipini egiten dira, ipintzen zaizkio. Zuhaitz mugarroaren garapen bat da. Mugarroari adar berezi batzuk osorik utzita egiten da ipinabarra. Geurean bi adar uzten ziren,

zuzena bat eta okerra bestea. Bi adar handi hauek etxeen eta ontzien eraikuntzarako beharrak asetzeko uzten ziren. Tamaina eta forma berezikoak ziren.

JAKOBA ERREKONDO



Ipinabarra "Tentei bakar" basoan (Oleta, Araba).

Zurokerrak erabiltzea ondo gure kulturarena da: asto-zaldiak etxegintzan eta ontzigintzako zuakerrak. Aipagarria da azken hauen forma, ontzien egiturarako okerdura jakin batekoak behar baitziren.

Oraindik ere horretan jakitun direnak harritu egiten dira gure ontzioletan egiten ziren ontzitzarren osoko zuoker berdin-berdinak ikusten dituzteno. Okerduran zaildutako egurra oso-osorik jartzen da lanean, aldenik alde zuntzak ebaki gabe dituelarik. Zurak aparteko sendotasuna, iraupena eta hauskaiztasuna ditu.

Mugarrotik ipinabarrerako urrats honek, lehenaz gain, basoari ikaragarritzko etekina erantsi zion: larreari eta erregaiari eraikuntzarako materialarena, alegia.

XVI. eta XVII.eko kanpoko ontzigileak eta gaur egungo maki-na bat arkeologo, basozale, historialari eta abar txundituta ditu basoa lantzetik abiatzen den jakintza tzar honek.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)